



DISKOA

Gazte beti, bizirik beti!



Fly Shit eta Managaitz taldeko kideak.



GAZTAROKO EROKERIA BAT BAINO GEHIAGO FLY SHIT / MANAGAITZ

IN MY HEART EMPIRE/DDT. 31

IKER BARANDIARAN

Bergarako Fly Shit taldea oso gazte, hasi berri, ezagutu nuen euren herrian gaztetxerik ez zegoenean eta funtzio hori nolabait Pol-Pol tabernak betetzen zuenean. Gu baino gazteagoak izanda ere, hardcoreak liluratuta zituen kideak eta luzaroan lan egin dute ia bakarrik gure eskualdean beste belaunaldi batzuk hainbeste maitatutako soinu eta gauzak egiteko moduari eusteko. Horren erakusle gero landutako gaztetxea, hauspotutako Txapa Irratia eta beste.

Zarauzko Managaitz askoz geroago ezagutu ditut, baina horiek ere tesuinguru antzekoan kokatu ditzakegu. Eszena emankorrangoan bai, baina oso gaztetatik herriko gaztetxean, irrati librean eta beste inplikaturak.

Horrek guztiak erakusten du, askok uste dutenaren kontrara, halako musika eta jarrera lantzeko ez dagoela adinik eta benetan sinistuta atera daitekeela denbora eta indarra; ezta? Ez dela, bada, gaztaroko erokeria soila...

Oso dotorea iruditu zait gaur egun Euskal Herrian dauzkagun bi hardcore-punk talde hauek landutako elkarlana; egiteagatik, egin daitekeela erakustegatik eta emaitza txukunagatik ere. Momentuz biniloan kaleratu dute; eta laster CDan ere argitaratuko da.

Fly Shitek ezingo du inoiz alboratu DNAn erabat zizelkatuta dituen Bap! eta RKL (nik ere ez nituzke alboratuko!); horren adierazle dira hainbat melodia, gitarrariff eta erritmo aldaketa; baina taldea askoz harago doa: *Bidai klandestino*a kan-

ta borobila da, erritmo aldaketa, abiadura eta *tempo* erdiak dituen. *Heriotz gurtzatuak*-ek oso presente dauka Fugazi talde handia. *Fly Shit 2* autobiografikoa da, azkarra, indartsua eta malenkoniatsua. Eta, azkenik, *Sareetan harrapatuta* eskola zaharreko hardcore amorratu samarra.

Managaitz taldearen eskaintza sorpresa izan da niretzat, izenez bai baina kantuz ezagutzen ez nituelako. *Bisitari lotsagabea*, *Ez ahandzi nitaz* eta *Zerbaitetarako balio izatea* eskola zaharreko hardcore-punka dira melodia ere jasotzen dutena. *Espiralaren gailurra* Bap! zaharren erritmoak, indar bizia eta sentimenduak uztartzen dituen maisulana. Eta *Ezin dugu zein Kamera gabe* ere erritmo aldaketak barra-barra eta erritmo bizia dituzten kanta sentikorrak. ●